

# IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA



**CERVANTES ESKOLA HLHI**

*2023 - 2025 IKASTURTEAK*

# **AURKIBIDEA**

<b>1. SARRERA</b>	<b>3</b>
1.1. Ikastetxearen testuingurua	3
1.2. Proiektuaren justifikazioa	3
1.3. Egiteko prozesua eta lantaldea	4
<b>2. IKASTETXEAREN EGOERAREN AZTERKETA</b>	<b>6</b>
2.1. Prozesuetan IKTak erabiltzeari buruzko hausnarketa	6
2.2. AMIA analisia	8
2.3. Autoebaluazioaren ondorioak	11
<b>3. HELBURUAK ETA EKINTZAK</b>	<b>13</b>
<b>4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA</b>	<b>19</b>

# **1. SARRERA**

## **1.1. Ikastetxearen testuingurua**

Gure eskola **Haur eta Lehen Hezkuntzako** ikastetxe publikoa da, Bilboko erdigunean kokatua, Abandoko barrutian. **A eta D ereduetan** irakasten da; egoera horren ondoriozko berezitasunek eskatzen dute, alde batetik, eredu bakoitzerako erabaki espezifikoak hartzea, eta, bestetik, ikasleen arteko hizkuntza- eta kultura-desberditasunak gainditzeko beste batzuk. Maila sozioekonomikoa ertain-baxua da azken proba diagnostikoen arabera.

Ikasle kopurua 300 ingurukoa da, ingurune, auzo eta nazionalitate ezberdinetakoak; horregatik, aniztasunarekiko arreta gure eskolaren funtsezko ezaugarrietako bat da. Era berean, azpimarratzekoa da gure klaustroaren aldakortasuna, batez ere behin betiko irakasle gutxi daudelako.

Hausnarketa eta horren ondoriozko erabakiei dagokienez, gure eskolaren norabidea zehazteko oinarri izan diren bi printzipio daude: inklusioa eta bizikidetzeta. Biak ezinbesteko elementuak dira ikasle bakoitzari egokitutako hezkuntzaren hasiera eta helmuga definitzerakoan. Horregatik, urtez urte, alderdi horiek indartzeko jarduerak eta prestakuntzak garatzearen aldeko apustua egiten dugu.

## **1.2. Proiektuaren justifikazioa**

Gure ikastetxea etengabe aldatzen ari den mundu baten eta gero eta digitalizatuago dagoen gizarte eta lan-merkatu baten parte da; hori dela eta, premia eta eskaera horiei erantzun behar diegu, etorkizuneko herritarrak ingurune digitalizatu batean moldatzeko behar diren gaitasunekin trebatu ahal izateko. Ezinbestekoa da teknologia eskola-erakunde batean gertatzen diren praktikan erabiltzea, antolamendu-gaiekin erlazionatutakoetan nahiz irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuei dagozkienetan.

Funtsezkoa da baliabide pedagogiko digitalen erabilerari ikastetxe-ikuspegia ematea, dauden aukerak eta baliabideak aprobetxatuz, hezkuntza-komunitateko kideentzat partekatutako proiektu bihur dadin, koherentziaz eta teknologien erabilera gidatuz. Hezkuntza Proiektuaren eta Urteko

Programazioaren parte izango da.

Ikastetxeek beren potentzial digitala plan baten bidez garatzeko funtsezko erreferentzia *Digitalki Gai diren Hezkuntza Erakundeetarako Europako Markoa* da (*DigCompOrg*). Esparru hori *Furthering Innovative Education* azterlanaren zati da; ikerketa hori Europako Batzordeko Hezkuntza eta Kultura Zuzendaritza Nagusiak eta Ikerketa Zentro Komuna-Prospektiba Teknologikoko Ikerketa Institutuak jarri dute abian.

### **1.3. Egiteko prozesua eta lantaldea**

Gure ikastetxea **2019-2020 ikasturtean** hasi zen eraldaketa digitalerantz, *Sare Hezkuntza* programan sartu zenean. Horrek aldaketa handia ekarri zuen irakaskuntza-, administrazio- eta komunikazio-prozesuetan, informazio guztia G-Suiten partekatutako unitateetan antolatuz.

Irakasleek prestakuntza egin zuten eta partida ekonomiko bat bideratu zen *Chromebook* gailu batzuk erostera, eta **2020-2021 ikasturtean** heldutasun digitalaren maila ertaina lortu genuen. **2021-2022 ikasturtean**, Ikastetxearen Plan Digitalean aurrera egin genuen, eta, horretarako, zuzendaritza-taldea Berritzeguneak proposatutako hasierako pilotatze batean sartu zen. Europako Batzordeak diseinatutako *Selfie for Teachers* autoebaluazio digitaleko tresna erabili zen, eskola ikaskuntza digitalari dagokionez zer puntutan zegoen jakiteko. Horrez gain, ikasleen konpetentzia digitalarekin lotutako helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak definitu ziren, eta informatika-saio bat sartu zen asteko ordutegiaren barruan. Horren guztiaren ondorioz, Plan Digitala etorkizunean garatzeko oinarriak finkatu ziren.

**2022-2023 ikasturtearen** hasieran, batzorde digitala eratu zen, zuzendaritza-taldeak, digitalizazio-arduradunak eta berrikuntza-arduradunak osatua, Ikastetxeko Plan Digitalaren bidez landu nahi diren eremuak gauzatzeko, eta haren garapena sustatu eta ebaluatzeko. Horrela, bada, digitalizazioaren erreferenteak plan digital hori garatzeko mentoretza-sareak proposatutako bileretan parte hartu zuen.

Batzorde digitalaren eginkizun nagusia da plan digitala ezartzea eta haren betetze-maila

ebaluatea; era berean, beste funtzio batzuk ezarri ahal izango ditu. Batzorde horrek zehazten ditu denboralizazio-prozesua egiteko modua eta horren etapak, ikastetxea zein abiapuntutan dagoen eta nora iritsi nahi duen aintzat hartuta. Planean aurrerapenak egin ondoren, hezkuntza-komunitateari jakinaraziko dio, ekarpenak egin ahal izateko. Ondoren, plana zabaldu egingo da, eta ebaluazio- eta jarraipen-prozesua garatuko da.

## 2. IKASTETXEAREN EGOERAREN AZTERKETA

### 2.1. Prozesuetan IKTak erabiltzeari buruzko hausnarketa

Hausnarketa hori *Selfie for Teachers* tresnan edo autoebaluaziorako beste tresna batzuetan jasotako emaitzetan oinarritzen da:

- Modu positiboan baloratzen da ikastetxearen estrategia digitala, guztien arteko lankidetzan onarekin eta irakaskuntza-modalitate berriak babestuz; halere, horiek aztertzeko denbora mugatua da. Egile-eskubideak eta erabilera-lizentziak errespetatzen dira, baina horri buruzko prestakuntza jaso beharko da.
- Teknologia digitalekin irakasteko eta ikasteko egin dugun aurrerapenaren ebaluazioa ona da, eragile guztien abantailak eta desabantailak eztabaidatuz. Beste zentro batzuekin lankidetzan aritu behar dugu IKTen erabilera bultzatzeko.
- Ikastetxeak irakaskuntza-erabilerarako nahikoa azpiegitura du; hala ere, kasu askotan zaharkituta dago edo ez dabil behar bezala. Balorazio negatiboa ematen zaio laguntza teknikoari (kanpoko eragileak).
- Ikasleek ez dute etxera eramateko gailurik; 1. mailatik 4. mailara ikasleek ez dute eramangarrikerik eta ikastetxearen gailuak erabiltzen dituzte. Arrakala digitala eta irakaskuntza mistoaren zailtasunak identifikatzeko neurri nahikoak daude, baina protokolo bat ezarri behar da. Zentroak asistentzia-teknologia nahikoak ditu, baita irakaskuntzako eta ikaskuntzako materialak dituzten biltegiak ere.
- Iritzi ona hezkuntza-komunitatearen barruan teknologia digitalekin irakasteari buruzko esperientzia-trukeari buruz, nahiz eta irakasleen premiei buruzko eztabaidarik ez dagoen.
- Irakasleek baliabide digitalak sortzea batez bestekoaren barruan, nahiz eta ikasleekin ikasteko ingurune birtualak sortu behar diren. Teknologia digitalak erabiltzen dira eskolari buruzko komunikaziorako, baita hezkuntza-baliabide irekiak ere.
- Teknologia digitalak erabiltzen dira irakaskuntza-metodoak ikasleen premia indibidualetara egokitzeke, eta modu positiboan baloratzen da. Irakasleek ikasleak motibatzen dituzten

ikaskuntza-jarduera digitalak egiten dituzte, eta teknologiak erabiltzen dituzte ikasleen arteko lankidetzaz errazteko. Halere, ikasleek teknologia digitalak erabiltzen dituzten diziplinariako proiektuetan parte har dezaten gutxi sustatzen da.

- Oso gutxi baloratzen ditugu ikasleek ikastetxetik kanpo garatu dituzten trebetasun digitalak. Bertan, emaitza baikorra da: ikasleek Interneten aurkitzen duten informazioa fidagarria eta zehatza den egiaztatzen zein segurtasunez jokatu ikasten dute, arduraz jarduten dute, informazioaren kalitatea egiaztatzen dute eta edukiak sortzen dituzte. Komunikatzen ikasten dute eta hainbat gaitan trebetasun digitalak erabiltzen dituzte.
- Hauek dira teknologien erabilera mugatzen duten faktoreak: funts falta, Internetarako konexioa, eskola-espazioa eta denbora falta, klaustro aldakorra eta irakasleen profil teknologiko digitala.

## 2.2. AMIA analisia

### Faktore negatiboak

#### Ahuleziak (barnekoak)

Teknologia berriak aztertzeko denbora gutxi.

Beste zentro batzuekin lankidetzan ez aritzea IKTen erabilera bultzatzeko.

Ikasleek ez dute gailu propiorik; ikastetxearen jabetzako gailuak erabiltzen dira.

Irakasleen beharrei buruzko eztabaidarik eza.

Irakasleek ez dute ikasleekin ikasteko ingurune birtualik.

Teknologia digitalak ikasleen trebetasunak behar bezala ebaluatzeko eta haien ikaskuntzari buruz hausnartzeko erabiltzeko beharra.

Oso gutxi baloratzen dira ikasleek ikastetxetik kanpo garatu dituzten trebetasun digitalak.

Irakasleak eta ikasleak inplikatzeko zailtasunak, eta atzeralikadurarako denborarik eza.

Familiei laguntzeko zailtasunak.

Zibersegurtasunaren arloko ezagutza mugatuak.

Bizikidetzaz arazoak dituzten eta ikasteko motibazio gutxi duten ikasleak.

IKT material zaharkitua edo egoera txarrean.

Klaustroko kideen interes desberdinak, etengabeko aurrerapena zailtzen duena.

Esperientziarik eza metodologia aktiboetan.

Hezkuntza Sailak proposatutako tresnen erabilerrarren aurrean familia batzuen ziurgabetasuna edo ukatzea.

Irakasleek IKT tresna batzuk erabiltzeko zailtasuna; aplikazio berriak etengabe.

Laguntza tekniko mugatua edo urria.

Ikasleen ezagutza teknikoa: ez dakite softwarea erabiltzen, eta ez dute ez laguntzarik ez lekurik.



## Mehatxuak (kanpokoak)

Arrakala digitala gero eta handiagoa; ikasleen arteko desberdintasun sozioekonomikoak.

Prestakuntza falta; maila sozialean ez dugu hezkuntza digitalik.

Baliabide urriak: langileak, materialak, gailuak...

Barne-orientazioa, ikasketa-bisitarik ez.

Interneten arriskuak gizartean: pribatutasun falta, jazarpena, ziberbullyinga...

Interneterako eta gailu digital propioetarako sarbide mugatua duten ikasleak.

Zenbait familiaren gaitasun digital baxua.

Wifi-sare urria, gailuen eta aplikazioen erabilera mugatzen duena.

Familia batzuek ez dute interesik ikastetxearekin komunikatzeko sistemak erabiltzeko.

Baliabide ekonomikoen eskasia.

Interneteko konexiorik ez etxe batzuetan.

Gailu digitalen gehiegizko erabilera, desegokia.

## Faktore positiboak

### Indarguneak (barnekoak)

Lankidetzaren ona eta irakaskuntza-modalitate berrien babesa.

Teknologia digitalekin irakastearen eta ikastearen arloan egindako aurrerapenaren abantailei eta desabantailei buruzko eztabaida.

Irakasleek ikasleak motibatzen dituzten ikaskuntza-jarduera digitalak egiten dituzte, eta teknologia digitalak erabiltzen dituzte ikasleen arteko lankidetzaren errazteko.

Teknologia digitalen bidezko irakaskuntzari buruzko esperientziak trukitzea hezkuntza-komunitatearen barruan.

Irakasleek baliabide irekiak erabiltzea.

Ikastetxeak familiekiko komunikazio erregularra eta antolatua.

Irakasleen arteko lankidetzaren, eskolaren barruan, teknologia erabiltzeko.

Ikastetxeak behar adina neurri dituzten arrakala digitala eta ikaskuntza mistoaren zailtasunak identifikatzeko.

Zentroak asistentzia-teknologia nahikoak ditu, baita irakaskuntzako eta ikaskuntzako materialak dituzten biltegiak ere.

Klaustroko kideen arteko talde-lana praktikan jartzea.

Zuzendaritza-taldearen eta klaustroaren arteko giro ona.

Hezkuntza Sailak eskaintzen dituen kudeaketa-tresnak erabiltzea: *Microsoft, Google Suite...*

Etengabeko harremana familiekin.

Ebaluazio-txostenak posta elektronikoz bidaltzea.

Irakasleek eduki digitala sortzea.

## Aukerak (kanpokoak)

Hiri batean biztanle eta azpiegitura gehiago daude; ondorioz, aukera, eskuragarritasun eta konexio gehiago.

Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntzak eta maila sozioekonomiko handiagoa Abandon.

Eusko Jaurlaritzaren bultzada digitalizazioaren arloan.

Lege berriak ikasleen irteera-profila bermatzen du.

Hiri batean digitalizazioa inguruan dago, erabilgarria eta ohikoa da, ez da abstraktua.

Beste hezkuntza-erakunde batzuekiko harremanak sustatzea.

Beste ikastetxe batzuetako praktika onak eta esperientzia berritzaileak ezagutzea.

Prestakuntza-ikastaroak egiteko aukera.

### 2.3. Autoebaluazioaren ondorioak

- **Indarguneak** optimizatzea **aukerak** areagotzeko:

Ikastetxeak garatu duen estrategia digitalean aurrera egitea, kanpora begira. Prozesuetan sakonduz elkarrekintzak sortzen hastea, ikasleekin zein irakasleekin; horrek aldaketa kualitatibo handia ekarriko du, 2019tik lantzen ari garen ibilbide digitala indartuko duena, urte horretan hasi bainekin *Sare Hezkuntza* proiektuarekin.

Horrez gain, eragile gisa jardungo du, *Eraldatzen* proiektuaren palankak lantzeko baliabideak, ezagutza eta azpiegitura garatuz.

- **Ahuleziei** aurre egitea **aukerak** aprobetxatzeko:

Hezkuntza-komunitatearen arteko komunikazio digital eraginkorra sustatzea. Horrek irakasleek eta familiek antzemandako denbora faltari aurre egiteko aukera berriak sortzea ekarriko du, baita digitaletik esku-hartze esparru komun bat ere.

- **Indarguneak** optimizatzea **mehatxuak** txikiagotzeko:

XXI. mendeko erronka digitalei erantzungo dien Gaitasun Digitalaren garapenean sakontzeak, hezkuntza-komunitateko kide guztiekin batera, ikasleen eta irakasleen curriculumak ezartzen duen

irteera-profilari jarraituz, hautemandako mehatxu digitalak eraginkortasun handiagoz kudeatu ahal izatea ahalbidetuko du.

- **Ahuleziei eta mehatxuei** aurre egitea:

Ikastetxearen estrategia digitala sustatzea, ikaskuntza birtuala eta beste erakunde batzuekiko lankidetzaz garatuz, baita irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen hezkuntza-kalitatea hobetzeko erabakiak hartzea ere. Horrez gain, teknologia digitalek aukera ematen dute ikasleen ikaskuntza hobetzeko eta euren jarraipena eta laguntza modu pertsonalizatuagoan egiteko, komunikazio-bideak garatzeko, atzeraelikadura aberasteko... Horrek guztiak antzemandako arazoei erantzun eraginkorragoak ematea erraztuko digu.

Era berean, curriculum berriak ekartzen dizkigun baldintzak betetzea ahalbidetuko du, bai irteera-profilean, bai curriculum-proposamenean, ebaluazioa barne.

### 3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

#### LG Lidergoa eta gobernantza

##### Helburua

Ikastetxearen estrategia digitala definitzea, hezkuntza-komunitatearekin modu osasungarrian garatuz, eskolaren garapen digitala bultzatzeko.

Deskriptorea	Epea
LG 1.1. Argiro adierazten da ikaskuntza digitaleko teknologien potentziala	2025eko ekaina

Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 1.1. A2 Proiektu digitala idatzi da.	Bai/Ez	Bai
LG 1.1. A3 Eskolak protokolo bat du, honako gai hauei buruzko kanalak eta uneak ezartzen dituenak: teknologia eta Interneten erabilera onargarria, osasuna eta zibersegurtasuna, gaitasun digitalaren garapena eta web aplikazioak, softwarea eta hardwarearen erabilera.	Ehunekoetan	% 60

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Digitalizazio-batzordearen eginkizunak zehaztu.	Pertsonalak	Zuzendaritza-taldea	2023/09/30	Prozesuan (% 60-79)
Ikastetxeko dokumentuetan IKTen integrazioa islatu.	Dokumentuak	Zuzendaritza-taldea + BeA	2025/06/30	Prozesuan (% 60-79)
Ikastetxeko plan digitala klaustrora bidali.	Pertsonalak	BeA	2023/09/30	Prozesuan (% 60-79)
Ikastetxeko dokumentuetan ziberjazarpenarekin edo ziberbullying-arekin lotutako bidegabeko jokaerak sartu.	Dokumentuak	Zuzendaritza-taldea + BeA + Bizikidetzaren batzardea	2024/06/30	Prozesuan (% 40-59)

## II Irakaskuntza eta ikaskuntza

### Helburua

Ikastetxean baliabide didaktiko digitalak ekoizteko era erabiltzeko mekanismoak artikulatzea, horiek antolatzeko eta sailkatzeko espazioak sortuz eta ikastetxean berrikuntza pedagogikoa bultzatzeko erabilera-prozedurak zehaztuz.

Deskriptorea	Epea
II 1.3. Irakasleen eta ikasleen gaitasun digitalaren alderaketa egiten da.	2025eko ekaina

Adierazlea	Mota	Helmuga
II 1.3. A1 Irakasleen gaitasun digitala ebaluatzen da ( <i>Selfie for Teachers</i> ).	Bai/Ez	Bai
II 1.3. A2 Ikasleen gaitasun digitala ebaluatzeko irizpideak sartu dira programazioetan eta unitate didaktikoetan.	Ehunekoetan	% 80

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
<i>Selfie for Teachers</i> tresna erabili irakasle-taldearen gaitasun digitala neurtzeko.	Selfie for Schools	BeA + Dinamizatzailea	2023/11/30	Prozesuan (% 60-79)
Baliabide didaktikoak sailkatzeko eta antolatzeko biltegi bat sortu, elikatu eta egunero mantendu.	Drive	BeA + Zuzendaritza-taldea	2025/06/30	Prozesuan (% 60-79)
Programazioetan gaitasun digitala garatzeko eta IKTak integratzeko modua zehaztu.	Dokumentuak	BeA	2024/06/30	Prozesuan (% 60-79)
Hezkuntza-laguntzako berariazko premiei arreta eman, IKTen bidez.	Sareko baliabideak, pertsonalak, biltegiak	BeA + HBP taldea	2024/06/30	Prozesuan (% 60-79)
Gailuak mantentzeko kudeaketa-protokoloa sortu eta garatu.	Dokumentuak	BeA + Premia arduraduna	2023/12/31	Prozesuan (% 40-59)
Zentroko informatika-tresneriaren	Documentuak	Premia arduraduna	2024/06/30	Prozesuan (% 60-79)

beharren txostena, hautemandako beharren arabera. Lehentasunak ezarri (zaharkituak, mantentze-lanik gabekoak...)				
--	--	--	--	--

## GP Garapen profesionala

### Helburua

Irakasleen gaitasun digitala garatzeko estrategia bat diseinatzea, ikastetxeak definituko duen gutxieneko profil komun bat ezarriz, autoebaluazioa bideratzeko tresnak eskainiz, prestakuntza-beharrak identifikatuz eta prestakuntza-planak antolatuz.

### Deskriptorea

### Epea

GP 1.4. Agerian geratzen da ikuspegi sorta zabala dagoela.

30/06/2025

### Adierazlea

### Mota

### Helmuga

GP 1.4. A1 Irakasleek gaitasun digitala hobetzeko esperientziak eta ezagutza trukatu ahal izateko espazioak eta uneak planifikatu dira.

Ehunekoetan

% 70

GP 1.4. A2 Ikastetxeak erakundearen ikaskuntza-ingurune bat garatu du. Bertan, egindako prestakuntza-saioak eta -jarduerak jasotzen dira, baita irakasleek garatutako materialak ere.

Bai/Ez

Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Zentroak babes- eta segurtasun-neurrien arloan dituen prestakuntza-beharrak ezarri.	Kanpoko prestakuntzak, pertsonalak	Digitalizazio batzordea	2024/02/29	Prozesuan (% 40-59)
Beharrak hautemateko inkesta zabaldu.	Inprimakia	BeA	2024/03/31	Prozesuan (% 60-79)
Piramide-formazioa sustatu.	Pertsonalak	Digitalizazio batzordea	2024/06/30	Prozesuan (% 60-79)



## EJ Ebaluazioa

### Helburua

Sekuentzia didaktiko guztietan konpetentzia digitala ebaluatzeko irizpideak diseinatzea, ikastetxeak ezarritako mailaz mailako garapena erreferentziatzen hartuta, ikasle guztien gaitasun digitala behar bezalako garapena ziurtatzeko.

Deskriptorea	Epea
EJ 1.1. Ebaluazio hezigarriaren irismena zabaltzen da.	2025/06/30

Adierazlea	Mota	Helmuga
EJ 1.1. A1 Arloen/ikasgaien ehuneko batek errubrikak erabiltzen ditu irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan, ikasleek beren ikaskuntza-prozesuari buruz hausnartu ahal izan dezaten.	Ehunekoetan	% 80
EJ 1.1. A3 Arloen/ikasgaien ehuneko batek atzeraelikadura automatikoa ematen duten lineako jarduerak erabiltzen ditu, ikaskuntza-prozesuari buruzko autohausnarketa erraztuz.	Ehunekoetan	% 80

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikasleen hausnarketa eta ebaluaziorako biltegi bat sortu, ikaskuntza-errubriken bidez.	Drive, biltegiak	Digitalizazio batzordea	2024/06/30	Prozesuan (% 60-79)
Sekuentzia didaktikoetan gaitasun digitala garatzeko eta IKTak integratzeko modua zehaztu.	Pertsonalak, dokumentuak	BeA + Ikasketaburua + Dinamizatzaileak	2024/06/30	Prozesuan (% 60-79)

## EN Laguntza- eta lankidetzaren sareak

### Helburua

Ikastetxean ezagutza, informazioa eta baliabide digitalak trukatzeko plan bat ezartzea, horretarako beharrezkoa den plataforma antolatuz, komunitate osoa eskolaren parte senti dadin.

Deskriptorea	Epea
EN 1.1. Ezagutzak bateratzeko eta edukiak partekatzeko irakasleen arteko sareko lankidetzaren normala da.	2025/06/30

Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 1.1. A1 Ikastetxeak ikaskuntza-ingurune bat garatu du, bertan jasotzen den informazioa aintzat hartuta, eta iturriak eta kudeatzeko arduradunak hautatuz.	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Sareak eta SITE-ak eguneratu.	SITE-ak, webguneak, bloga...	BeA + Zuzendaritza-taldea + Arduraduna	2025/06/30	Prozesuan (% 60-79)
Komunikazio-plan bat egin eta abian jarri.	Dokumentuak	Digitalizazio batzordea	2024/06/23	Prozesuan (% 60-79)
Irakasle eta ikasle bakoitzaren postako Microsoft kontuen urteko aktibazioa eta jarraipena.	Microsoft kontuak	BeA + Dinamizatzaileak	2023/10/31	Prozesuan (% 60-79)
Beharrak hautemateko inkesta sortu (Eten digitala).	Inprimakiak	BeA + Premia arduraduna	2023/12/30	Prozesuan (% 60-79)
Web eta sare sozialeko argitalpenetarako arduradunak eta estiloa definitu.	Pertsonalak	Zuzendaritza-taldea + BeA	2023/12/31	Prozesuan (% 60-79)

## 4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze-maila	Hobetzeko proposamenak
LG	Ikastetxearen estrategia digitala definitzea, hezkuntza-komunitatearekin modu osasungarrian garatuz, eskolaren garapen digitala bultzatzeko.	2025eko maiatza	Checklist Behaketa	BeA + Zuzendaritza-taldea		
II	Ikastetxean baliabide didaktiko digitalak ekoizteko era erabiltzeko mekanismoak artikulatzea, horiek antolatze eta sailkatzeko espazioak sortuz eta ikastetxean berrikuntza pedagogikoa bultzatzeko erabilera-prozedurak zehaztuz.	2025eko maiatza	Aldizkako jarraipen-bilerak	BeA		
GP	Irakasleen gaitasun digitala garatzeko estrategia bat diseinatzea, ikastetxeak definituko duen gutxieneko profil komun bat ezarriz, autoebaluazioa bideratzeko tresnak eskainiz, prestakuntza-beharrak identifikatuz eta prestakuntza-planak antolatuz.	2025eko maiatza	Inprimakia Elkarrizketa Behaketa	BeA		
EJ	Sekuentzia didaktiko guztietan konpetentzia digitala ebaluatzeko irizpideak diseinatzea, ikastetxeak ezarritako mailaz mailako garapena erreferentziatzen hartuta, ikasle guztien gaitasun digitala behar bezalako garapena ziurtatzeko.	2025eko maiatza	Inprimakia Checklist Behaketa	BeA + Zuzendaritza-taldea		

EN	<p>Ikastetxean ezagutza, informazioa eta baliabide digitalak trukatzeko plan bat ezartzea, horretarako beharrezkoa den plataforma antolatuz, komunitate osoa eskolaren parte senti dadin.</p>	2025eko maiatza	Checklist Behaketa	BeA + Zuzendaritza- taldea		
----	---	-----------------	-----------------------	----------------------------------	--	--